

URRATSBAT PROIEKTUA

Es un programa promovido por la Dirección de Formación Profesional del Departamento de Educación del Gobierno Vasco para ayudar al alumnado de FP en la creación de su propia empresa y apoyar e impulsar la cultura emprendedora entre los alumnos.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako zuzendaritzak sustatu du, LHko ikasleei nork bere enpresa sortzen laguntzeko eta ekintzaletza bultzatzeko eskoletan.

IZUBI SLL (2007/08 IKASTURTEAN SORTUTAKO ENPRESA)

1. Nola sortu zen enpresa bat montatzeko ideia?

Hasieran piezak pintatzeko ideiarekin Gaizka eta Miguel Mari hasi ginen hizketan , geroxeago Joselu eta Aitor topo egin genuen eta ideia aldatu genuen.

2. Zer motatako enpresa da? Zer egiten duzue?

Mekanizaturako enpresa bat da. Zilindro hidraulikoak mekanizatzen ditugu, makina-erreminta sektorerako, eolikorako, automoziorako, mantenimendua fundiziorako, denetik pixka bat. Horretarako bi mekanizatu-zentro ditugu eta tornu bat.

3. Hasieran zailtasun handiak izan zenituzten? Laguntzarik izan al duzue?

Finantziazioa, enpresa martxan jartzeko 300.000€ inguruko inbertsioa egin dugu eta horrek buruhauste handiak ematen dizkizu: bankuekin negoziazioak, lokala topatzeko lana, INEMarekin harremanak, Eusko Jaurlaritzaren subentzioak , ezagutzen ez genituen tramiteak,....

Beste aldetik, ezin dugu ahaztu Elgoibarko Institutuak, Urratsbat programari esker, bideragarritasuna eta negozio-plana egiteko eman zigun laguntza teknikoa eta ekonomikoa.

4. Alde handia al dago beste batentzako lan egitea edo norberarentzat?

Bai, mentalitate aldaketa izugarria da, erresponsabilitatea eta jasaten duzun presioa handiagoa da, arazo guztiak burutik ezin kenduta ibiltzen gara, orduak azkar pasatzen dira eta askotan turnoka egin behar dugu lan.

5. Komunikabide guztietan ez da besterik entzuten, krisia gora eta krisia behera, igarri al duzue zerbait?

Gu momentuz ezin gara kexatu, lan asko daukagu, bezero onak eta zenbait hornitzailek ere ordaintzeko erraztasunak ematen dizkigute.

6. Beraz, orain arte behintzat pozik ikusten zaituztet?

Gauzak espero genuen bezala ari dira irteten, oso esperientzia polita da eta asko ikasten ari gara. Inoiz izan duzun ametsa egia bihurtzen ari da.

7. Aholkuren bat bidali nahi diezue beren negozio-ideia aurrera atera nahi duten gazteei ?

Lehenengo beren ideian sinestu behar dute, konfiantza eduki eta animatu. Beste enpresa batean lan egin izateak ere esperientzia ematen dizu zure kontura jarri baino lehen. Ondo ikertu merkatua, zure produktua ondo egin, kalitatearekin, eta seriotasuna transmititu bezeroari.

Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenek aukera ederra dute Urratsbat programa aprobetxatzeko eta buruan duten ideia hori errealitate bihurtzeko.